

Inteligentzia arloko analistak ez dira makinak, ez dira alde batetik informazioa sartzen zaien (*input*) eta bestetik txostenak ateratzen zaizkien (*output*) kaxak. Ez dira milaka kalkulu egin ondoren produktu bat sortzen duten ordenagailuak.

Inteligentzia arloko analista pertsona bat da, bere historia propioarekin, ikasketa eta titulu jakin batzuekin eta ingurune sozial zehatz batekin. Eta honek guztiak, noski, eragina izango du bere iritzia eta balorazioetan. Bi eremuek, barnekoak zein kanpokoak, mugak sortuko dizkio bere ekinbidean aritzeko orduan.

Hona hemen muga hauetako batzuk:

Pentsamendu nagusitasuna

Pentsamendua aurretik izandako esperientzietan oinarrituta dago. Informazio berria iraganarekin zein egungo kezkekin erlazionatzeko joera dago.

Ondorioztatze azkarregia

Sinpletasunaren nahiak, berehalakotasunak edo biek batera, arazo baten azterketaren itxiera azkarrera eramaten dute.

Parekotasun desegokia

Gertaera bat iraganeko beste baten parekoa denaren pertzepzioa, berau kontzeptu edo ekintza batzuen inguruko oinarri desegoki batetik eratorria; edo baliorik gabeko irizpideetatik eratorria.

Historiaren azaleko irakaspenak

Faktoreen gehiegizko orokortasunera daramaten eta aztertzen ari den egoerarekiko estrapolazio desegoki bat egiten duen historiako kontzeptu edo gertaeren analisi akritiko edo friboloak egitea.

Ekintza bateratua

Aztertzen diren erakunde zein herrialdeen ekintzen bateratasunaren ustea. Besteen portaera dena baino planifikatuagoa, zentralizatuagoa eta koordinatuagoa denaren pertzepzioa. Istripua edo kaosa baztertzea. Gainontzekoen pertzepzio okerrak ez ditu detektatzen. Oinarrizko hutsegite bat da.

Instituzioarekiko atxikimendua

Antolakuntzaren Parrokialismoa ere deitua. Entitate baten parte izatean arauetik erabakiekiko eta ikuspegiekiko hartzen den atxikimendu zurruna. Funtzio zehatz baten espezializazioaren zein talde pentsamenduaren ondorio izan daiteke.

Gehiegizko konpartimentazioa

Sekretismoaren gorazarrea. Lan eremu bakoitzaren garrantzia lan kolaboratiboaren gaintetik jartzen da, erakundearen parte bakoitzak duen informazio partzialarekiko konfiantza artifizialki

handituz. Aldi berean informazioaren estutasuna eta partzialtasuna gailentzen da antolakundean.

Ispilu irudia

Besteak norberarekiko dugun pertzepzioaren arabera aztertzea. Sistema itxietan eta asko konpartimentatutakoetan errazago ematen da.

Etnozentrismoa

Kultura, sinesmen ideologiko eta gainontzekoen espektatiben proiektzioa. Ekintzaren zergatien arrazonamenduaren garrantzia gehiegizkoa.

Enpatia falta

Gainontzekoek haien munduarekiko duten ulerkeraren, bertan duten paperaren eta haien interesen pertzepzioa ulertzeko gaitasun falta. Finean, gainontzekoen tokian haien ikuspuntuekin jartzeko gaitasun eza.

Ezjakintasuna

Ezagutza falta. Antolakuntza arazoa bada, eremu batzuetan gertatzen den arazo partzial eta kotatu bat bezala hartzen da. Arrazoi ezberdinak izan ditzake muga-akats honek: jakin-min falta, etnozentrismoa, ikuspegi estuegia, errealitatearen ukazioa, ...

Arrazionalitatearen ukazioa

Beste aktore batzuen jarduera gaitasuna arrazionaltasun faltagatik dela uste izatea.

Aktore arrazionala

Besteek beti modu arrazionallean jokatzeko dutenaren hipotesia, norberaren portaera arrazionalaren goraipatzetik eratorria. Aurreko posizioaren guztiz kontrakoa.

Bitarteko eta helburuen arteko proportzionaltasun faltsua

Arerioak bere helburuekiko proportzionalak diren indarrak erabiliko dituenaren egiaztatu gabeko aurreiritzia. Besteen intentzioak jakinik haien ekintzen kostu eta ondorioen jabe direnaren ustea.

Ebidentzien ukazioa

Aurretik dugun informazioarekin talkan dagoen informazio berria alde batera uztea.

Idealizazioa

Sinesmen sistema baten parte gisa izan denaren, orain denaren, izango denaren zein izan beharko lukeenaren pertzepzioa izatea.

Ekiditea, defentsa mekanismo bezala

Estimulu mehatxagarriak eta alarmak sumatu eta ulertzea ekiditea. Erabaki mingarriak ekiditearen beharra.

Estimazio subjektiboetan gehiegizko konfiantza

Ebaluazioan akats optimista. Analisiaren itxiera goiztiarra edo azkarra ekar lezake.

Gehiegizko optimismoa

Gehiegizko sinesmenaren esajeraziotik autokonplazentzia eta gehiegizko konfiantza sortzea.

Analisi onena

Aktoreek norberak aurreikusi bezala jokatu dutenaren uste orokorrean oinarritutako ebaluazio optimista: aurreikusitako interesak defendatuko dituztela, aurreikusitako preferentzia politikoak izango dituztela...

Kontserbadore izatea

Arriskua ekiditearen nahia. Probabilitate oso altu edo oso baxuen estimazioak ekiditearen joera. Usteen egiaztapenak bilatzera joatearen joera. Pentsamendu errutina.

Gehiegizko eszeptizismoa

Aurretik izandako egoera gogorren, esperientzia negatiboen zein interes pertsonal edo korporatiboetan oinarria duen pesimismo eta gehiegizko zuhurtziazko jarrera.

Errealitatearen ulerkera mugatzen duten tranpa ugari ditugu: psikologikoak, antolakuntzazkoak, kulturalak zein logikoak.

Analistaren ibilbide osoan zehar oso argi ibili behar da akats hauetan ez erortzeko. Baina zer egin horretarako?

Lehenik eta behin, aurrean dugun bezalako artikuluak maiztasun askorekin irakurtzea, honela norberaren lanak berraztertu eta birbaloratzeko. Ongi egiten ari garenen ustea badugu horixe da konfort gunetik atera eta harropuzkeria astintzeko unea.

Bigarrenik talde jardunaldietan, eguneratzen ikastaroetan zein antolakunde ezberdinen arteko elkartrukeetan parte hartzea.

Gaur norberaren kaxatik ateratzeak, etziko gure analisien desbideratzea ekiditen lagun diezaguke.

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)

- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)

etzi.pm
ETORKIZUNA
IDAZTEN